# xarbot




junio de 2012 ko ekaina

umandi ikastola

# editoriala
## editorial

### ZERBITZU PUBLIKOAK GARATU! MURRIZKETARIK EZ!!!!

Pasa den apirilaren 10ean, Espainiako Gobernuak, aurten autonomia erkidegoek, Hezkuntzan eta Osasungintzan 10.000 miloi euro gutxiago gastatu beharko dituztela iragarri zuen. Apirilak 16an, Espainiako hezkuntza ministroak irakaskuntza ez unibertsitarioko m urrizketak zehaztu zituen: *irakasleen eskola orduak igo, irakasleen gaixoaldien lehen hamar egunetan ordezkapenik ez bete, ikasgela bakoitzeko ikasle kopurua %20an handitu, heziketa bereziko espezialisten lanpostu kopuruaren murrizketa, Lanbide Heziketako bi mila orduko moduluak martxan jarri ez, Batxilergo modalitate bat baino gehiago eskaintzeko derrigortasuna kendu...*

EAEko Gobernuak Espainiatik ezarri nahi dituzten murrizketak errekurritu egingo dituela esan duen arren, berandu baino lehenago aplikatuak izango direlakoan gaude. Honek guztiak, gure lan baldintzak okertzeaz gain, *ikasleen hezkuntzan eragin zuzena izango du.* Izan ere, nola eskaini kalitatezko zerbitzu publikoak langileon lan baldintzak okertuz? Nola eman kalitatezko hezkuntza gure ikasgelak masifikatuz? Nola bermatu ikasleen arreta indibidualizatua? Nola esan dezakegu eskola inklusiboa dela premia bereziak dituzten ikasleak beharrezko arreta jasotzen ez badute? Hezkuntzaren kalitatea, ekitatea, bikaintasuna, ...edukirik gabeko hitzak bilakatu dituzte. *Belaunaldi berrien hezkuntza kalitatea modu nabarmenean kaltetu eta okertuko dute murrizketa berri hauek.* Murrizketa berri hauek diogu, tamalez, ez zaigulako berria murrizketen kontu hau. Azken urteotan atzerapauso nabarmenak eman dira irakasleen eta heziketa bereziko espezialisten lan baldintzetan eta orokorrean, hezkuntza sisteman; ez baitugu ahaztu behar, 2010etik ordezkapenak ez direla lehenengo egunetik betetzen, 2003tik heziketa bereziko espezialisten lan hitzarmena sinatu gabe jarraitzen duela, urtetik urtera lanpostu gutxiago betetzen dituztela ikastetxeetan...Hau gutxi balitz, iazko abenduan, 60 urtetik gorakoentzat ordu-murrizketak, aurre erretiratze-primak, txanda-kontratuak eta gaixotasun-bajei lotutako osagarriak bertan behera utzi dituzte.

Errealitate gordin honen aurrean, *gure desadostasuna kaleratu nahi dugu.* Zerbitzu Publikoei egiten zaien eraso hauen aurrean, ez gara ixilik geratuko, kalean izango gara eta gure kexua lau haizetara zabalduko dugu. Krisi garaian ere zerbitzu publikoak garatzea ezinbestekoa delako.

*Pertsona ororentzat kalitatezko hezkuntza eta zerbitzu publikoen alde*

*MURRIZKETARIK EZ!!!*

### ¡GARANTICEMOS SERVICIOS PÚBLICOS ! ¡NO A LOS RECORTES!

El pasado 10 de abril el gobierno espanol anunció que los gobiernos autonómicos deberían gastar este año 10.000 millones de euros menos en Educación y Sanidad . El 16 de abril, el ministro español de educación detalló los recortes previstos en educación no universitaria: *aumentarán las horas lectivas de los docentes, no se cubrirán las bajas por enfermedad del profesorado hasta el décimo día, aumentará el número de alumnos por aula en un 20%, se reducirá el número de puestos de especialistas en educación especial, ....*

Aunque el gobierno vasco ha dicho que recurrirá los recortes anunciados por el gobierno central creemos que, más pronto que tarde, se acabarán aplicando aquí. Todo esto, además de empeorar nuestras condiciones laborales tendrá una *influencia directa en la educación de los alumnos/as.* ¿Cómo podemos ofrecer servicios públicos de calidad empeorando las condiciones laborales de los trabajadores? ¿Cómo ofrecer una educación de calidad masificando las aulas? ¿Cómo garantizar la atención individualizada a los alumnos? ¿Cómo hablar de escuela inclusiva si los alumnos/as con necesidades especiales no reciben la atención que necesitan? Enseñanza de calidad, equidad , excelencia, .... se han convertido en palabras sin contenido. Estos últimos recortes *perjudican notablemente la calidad de la educación de las nuevas generaciones.* Y este asunto de los recortes no es nuevo. En estos últimos años, se han dado retrocesos considerables en las condiciones de trabajo de los profesores y de los especialistas de educación especial y, en general, en todo el sistema educativo. Desde 2010 las sustituciones no se cubren desde el primer día, sigue sin firmarse el convenio laboral de los especialistas de apoyo educativo desde 2003, cada año se cubren menos puestos de trabajo en los centros de enseñanza,... Por si esto fuera poco, el pasado mes de diciembre quedaron suspendidas la reducción de horario lectivo para los mayores de 60 años, las primas por prejubilación, los contratos relevo y la remuneración de los complementos por baja por enfermedad.

Queremos expresar *nuestro desacuerdo ante esta cruda realidad.* No podemos quedarnos callados ante los ataques que se hacen a los servicios públicos. Seguiremos reivindicando y denunciando la situación donde sea necesario, porque en tiempo de crisis es imprescindible garantizar los servicios públicos.

*Por una enseñanza de calidad y en defensa de los servicios públicos...*

NO A LOS RECORTES

# aurkibidea
## sumario

AURKIBIDEA


| | |
|---|---|
| editoriala | 2 |
| aurkibidea | 3 |
| 2 urteko gela | 4 |
| 3 urteko gelak | 6 |
| 4 urteko gelak | 9 |
| 5 urteko gelak | 12 |
| 1. Maila | 15 |
| 2. Maila | 17 |
| 3. Maila | 20 |
| 4. Maila | 23 |
| 5. Maila | 26 |
| 6. Maila | 29 |
| kanpoko ekintza | 32 |
| ingelesa | 34 |
| liburutegia | 36 |
| sahara | 38 |
| umandi guraso elkartea | 39 |


SUMARIO


| | |
|---|---|
| editorial | 2 |
| sumario | 3 |
| Clases de 2 años | 4 |
| Clases de 3 años | 6 |
| Clases de 4 años | 9 |
| Clases de 5 años | 12 |
| 1. Curso | 15 |
| 2. Curso | 17 |
| 3. Curso | 20 |
| 4. Curso | 23 |
| 5. Curso | 26 |
| 6. Curso | 29 |
| extraescolares | 32 |
| ingles | 34 |
| biblioteca | 36 |
| sahara | 38 |
| asociacion de padres | 39 |



XARBOT
ERREDAKZIO

ERREDAKZIO TALDEA

Pablo Edu
Susana Zahira

Parte hartu dutenak:

-Ikastolako Ikasleak
-Ikastolako gurasoak
-Ikastolako irakasleak

Portada:

Itzal

Argitaratzea:

Guraso elkarteak

GRUPO DE REDACCIÓN

Pablo Edu
Susana Zahira

Han tomado parte:

- Alumnado de la Ikastola
- Madres y padres de la Ikastola
- Profesorado de la Ikastola

Portada:

Itzal

Edita:

Asociación de Madres y Padres



C/ Francisco Javier Landáburu, 9
01010 Vitoria-Gasteiz
Tlf: 945172801
Fax: 945172693
www.umandi.net


GURASO ELKARTEA UMANDI

## INAUTERIAK

ZEIN ONDO PASA GENUEN INAUTERIETAN!!!!





INDIOAK IZAN GINEN, JON BRAUN BEZALA

JON BRAUN
INDIO TXIKI BAT ZEN,
JON BRAUN
INDIO TXIKI BAT ZEN,
JON BRAUN
INDIO TXIKI BAT ZEN JON.

TXIKI BAT, TXIKI BI, HIRU INDIO TXIKI,
LAU TXIKI, BOST TXIKI, SEI INDIO TXIKI,
ZAZPI TXIKI, ZORTZI TXIKI, BEDERATZI INDIO TXIKI,
HAMAR INDIO TXIKI .





# 2 urteko gela

**GELAN ERE MOZORRATU GINEN ETXETIK EKARRITAKO GAUZEKIN.**





**EZTA IKASTOLAKO JAIA ERE, EZ GENUEN GALDU. OSO DIBERTIGARRIA IZAN ZEN!**







## ARRIAGA PARKEA, ZORAGARRIA

Udaberria iritsi zenean gure auzoko parkea dotore-dotore jantzi zen lorez eta kolorez.





Gu, 3 urteko hiru gelak batera, pozik eta kantari, ikastolatik irten eta hara abiatu ginen zuhaitzak eta loreak behatzera.







Parkeko zuhaitzak, asko eta asko, loratuta ikusi genituen.





Zuhaitzak behatu ondoren... jolastera!



Azkenik, Arriagako baselizan argazki bat atera genuen lagun guztiok batera. Koadrila polita, baietz! Lagun batzuk falta ziren, familiarekin oporretan zeudelako.



Parkean ikusitakoa gelako arte txokoan marraztu eta margotu genuen. Zer nolako arte lan politak egin genituen! Loreak, zuhaitzak, tulipanak....





Beno, zuek ere ikusiko zenituzten ikastolako festa egunean, ezta? 3 urteko pasabideko hormetan jarri genituen eta.

# 4 urte A



## LUDOTEKA 2012









LUDOTEKA 2012









xarbot

# 4 urte B



## MAZEDONIA EGIN DUGU

ZE GOZOA!



DENA NAHASTU

FRUTAREKIN EGINDA
BADIRA ERREZETAK
BATEN BAT PRESTATZEKO
HEMEN OSAGAIAK
PLATANO TA LARANJA
MARRUBI, KIWIAK
SAGARRAK, MADARIAK
NAHI DUZUN GUZTIAK

LARANJA ZUKUA EGIN!



SUKALDARI PROFESIONALAK GARA!

OSO ONDO PASA DUGU, EZTA?

ANAIA, AMA, AITA.



RUTAK EROSI ETA
LEHENENGO ZURITU
GERO EGIN BEHAR DA
BANAKA ZATITU
PLATER HANDI BATEAN
GUZTIAK NAHASTU
GUSTUKOA BADUZU
LEHENBAILEHEN DASTATU.

ON EGIN!

BAI
ORAIN ETXERA
ERAMANGO DUGU.



NORK GONBIDATUKO DUZU?



## 4 urte C

# DANBORRADA 2012







APIRILAREN 27AN SUKALDARIZ JANTZI ETA DANBORRADA OSPATU GENUEN IKASTOLAN..





IRAKURRI!!!



TRONPETA



PERRETXIKOA



DANBORRA



BARRASKILOA

ZEIN ONDO JO GENUEN DENOK ETA ZE GOXOAK ZEUDEN ROSKILLAK!

# 5 urte

DAGOENEKO 5 URTEKOOK HAUR HEZKUNTZAKO ZIKLOA BUKATU DUGU. MUNDU HONETAN GAUZA ASKO DAGO IKASTEKO ETA GUK HASI BAINO EZ DUGU EGIN.
HONA HEMEN AURTEN IKASITAKOAREN ADIBIDE BATZUK.

URTARRILEAN, OTXANDION DAGOEN KERIZARA BASERRIRA JOAN GINEN. BERTAN FELIX ABELTZAINAK BERE BIZIMODUKO GAUZA ASKO ERAKUTSI ZIZKIGUN.

ARDIEN KORTA IKUSI GENUEN, BERTAN ARDI PILA BAT ZEUKATEN ETA,DENAK BEEKA ARI ZIREN.

ONDOREN, ESNEA NOLA ATERATZEN DIETEN AZALDU ZIGUN FELIXEK.

GERO, GAZTA EGITEKO BEHAR DIREN PAUSUAKAZALDU ZIZKIGUN ETA, GAZTA ERE PROBATU GENUEN.
BEGIRA NOLA EGITEN DUTEN GAZTA!
BERTAN ZEGOEN USAINA EZ ZEN IZAN GEHIEN GUSTATU ZITZAIGUNA BAINA, JAN GENUEN GAZTAOSO GOZO ZEGOEN.











## ERROSKILAK

PRUDENTZIO DEUNA ZELA ETA ERREZETA BAT PRESTATU GENUEN: ERROSKILAK.







GEHIENOK EZ GENEKIEN OSO ONDO NOLA EGIN BEHAR ZIREN ERROSKILAK. BAINA ANDEREÑOEK ERREZETA BAT LORTU ZUTEN ETA,HOR AGINTZEN ZUENA JARRAITUZ OSO ERROSKILA GOZOAK EGITEA LORTU GENUEN.

ARRAUTZAK, IRINA, AZUKREA, LEGAMIA ETA OLIOA BEHAR DIRA GOZO-GOZO ATERATZEKO.



GUK SEKRETO BAT EDO BI DAUZKAGU ETA ZUEKINKONPARTITU NAHI DITUGU.

- ARRAUTZAK BOTATZERAKOAN IRABIATU GORRINGOAK ALDE BATETIK ETA, ZURINGOAK BESTE ONTZI BATEANOSO ONDO IRABIATU ZURI-ZURI JARRI ARTE,ELURRARENANTZERA.
- LIMOI BATEN AZALA ONDO BIRRINDU ETA OREAREKIN NAHASTU.

**ON EGIN!!!**



HASIERAN ESAN DUGUN BEZALA GAUZA GUZTIEK DUTE AMAIERA, ETA GURE HAUR HEZKUNTZAKO IBILBIDEA DAGOENEKO AMAIERARA IRITZI DA, HURRENGO URTEA AMETS BERRIEKIN ETA GOGO HANDIAREKIN LEHEN HEZKUNTZAN IKUSIKO DUGU ELKAR.





... ETA PISZINARA ERE BAI





GUK ERE OSO ONDO PASATU DUGU ZUEKIN, JARRAITU ORAIN BEZAIN JATOR.
GU OROITZAPEN ONEKIN GERATUKO GARA.
MUSU HANDI BANA!! MUUUUAAAA

AGUR ETA LASTER ARTE , OSO ONDO IGARO OPORRAK.

## 1 maila

**DINOSAUROEN GARAIKO
GAUZA ASKO IKASI DUGU ETA MAKETA IZUGARRIA EGIN GENUEN.
GUK EGINDAKO
SUMENDIA ETA FOSILAK ERE BAZEUDEN.**







Magui
SERVICIO DE CATERING
AENOR
ER
Empresa Registrada
ER-0673/2005

## 1.MAILAKOAK GORPUTZA ZAINTZEN

**1.MAILAKOOK HAMAIKETAKO OSASUNTSUA ZER DEN IKASI DUGU.
HONA HEMEN MARTXOAREN 6AN EGINDAKOAREN ARGAZKIAK.
IKUSTEN DENEZ, OSO GUSTORA EGON GINEN.
EZETZ ASMATU JAN GENUENA?**




# HAWAIARRAK UMANDIN

**BAIETZ ONDO PASATU GENUELA INAUTERIETAN ??**



**1.MAILAKOAK HAWAIKO NESKA MUTILAK BIHURTU GINEN. EGURALDIAK EZ ZIGUN ASKO LAGUNDU , BAINA BERDIN ZION.**

**PRIMERAN PASATU GENUEN. "TINGALAYO"ABESTIAREN DOINUAZ DANTZA POLIT BAT PRESTATU GENUEN ETA GURE LORADUN GIRNALDAK ETA PAREOAK JANTZITA BENETAKO HAWAIARRAK GINELA PENTSATU ZENUTEN. BAIETZ? JA,JA,JA...**

# 2 maila a

Oier 2.A (12-04-24)

## Salburua

Gaur Salburua-Atarira joan gara. Ahate mota batzuk ikusi ditugu, eta ahatekumeak. Maisuak uraren prozesua erakutsi digu, eta jolas bat egin dugu: uraren jolasa. Asmakizun batzuk egin dizkigute, eta gosaltzera joan garenean bi ahate ikusi ditugu, bat arra eta bestea emea. Gero maisuak erakutsi digu ahate batzuen mokoa eta zer jaten duten. Oso ondo pasa dut, errepikatuko nuke!

Oier







restaurante BASAJAUN

Menú del día · carta · menús especiales · desayunos · pinchos 'martes solidarios' · Postalfree promociones · exposiciones...

Portal de Foronda, 20 - 945 173 036

# IPUINAK IDAZTEN HASI GARA

## 2. B



## ~ Munstro atsegina ~

Duela urte asko herri batean mutil gazte bat bizi zen. Egun batean gaztea mendira joan zen. Mendian kobazulo bat aurkitu zuen, barrura sartu zen eta munstro bat ikusi zuen. Susto galanta hartu zuten biek. Baina munstroa atsegina zen eta lagun-lagunak egin ziren. Eta hala ez bazan hala gerta dadila.

Aritz eta Saioa

# Arte eta Lanbide Eskola



## JAPONIAR KOADERNOA

• Materiala: marrazkien plantilak, kartulinak, pintzelak, margoak, haria, jostorratza eta orri handiak.

• Pausoak:

1. Kartulinan plantilak erabiliz marrazkia egin.
2. Orriak erditik tolestu.
3. Orriak eta kartulinak elkartu eta zulotxoak egin.
4. Jostorratza eta hariarekin koadernoa josi.

Unax 2 C





## MASKARA

• Materiala: Krema, igeltsua, ura, margoak eta pintzelak

Pausoak:

1. Aurpegian krema eman
2. Igeltsu zatiak uretan bustu eta lagunaren aurpegian jarri.
3. Poliki poliki kendu maskara eta lehortzen utzi
4. Maskara margotu eta berria lehortzen utzi.



Ixone 2.C

KAIXO LOREA!

DAKIZUNEZ HAMAITU DUGU TXINAREN GAIA ETA ZER IKASI DUGUN KONTATU NAHI DIZUEGU.

HASTEKO ORAIN BADAKIGU TXINA NON DAGOEN, BAITA ERE TXINATARREK IPARRORRATZA ASMATU ZUTELA, IMPRENTA...GAINERA TAI-CHI ETA ACUPUNTURA EGITEA GUSTATZEN ZAIELA.

GUK GAUZA ASKO EKARRI DITUGU KLASERA, ADIBIDEZ:IRATIK GUARDASOLA, PAULAK EGUTEGI TXINATARRA, MALENEK DIRU TXINATAR ETA BERE PASAPORTEA, VIDALEK ETA IZELEK TXINATAR BOLATXOAK, SARAK KATANA BAT...BAKOITZAK AL DUENA EKARRI DU.

ISABELEK EGUN BATEAN ESAN ZIGUN PERTSONA BAT ZETORRELA AKUPUNTURAREN INGURUAN HITZ EGITERA, BAINA... EZ GENUEN IMAGINATZEN ZU IZANGO ZINENIK!

GUTUN HONEN BITARTEZ, ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIZUGU ACUPUNTURA ZER DEN IRAKASTEAGATIK ETA ORRATZAK EKARTZEAGATIK.

OSO INTERESGARRIA IRUDITU ZITZAIGUN HITZALDIA ETA JAKIN EZAZU ASKO IKASI DUGULA. HORREGATIK:

LOREA: ESKERRIK ASKO ETORTZEAGATIK ETA BESTE BAT ARTE.

3.A KO IRAKASLE-IKASLEAK

P.D. ORAIN BADAKIGU ZER DEN AKUPUNTURA.







LORD'S
academialords.es
ACADEMIA LORD'S
CAMPAMENTO DE DÍA mes de JULIO
CURSOS INTENSIVOS
JULIO 2012
INGLÉS-FRANCÉS EUSKERA
(TAMBIEN OTRAS ASIGNATURAS)
Se imparten clases para PET Y FIRST
mañanas y tardes
ACCESO A GRADO SUPERIOR
C/Voluntaria Entrega nº10, bajo
LAKUA-ARRIAGA. Tel. 945173628
academialords2@telefonica.net

## IGARKIZUNAK

1.NIK ESAN ETA ZUK ENTZUN,PENTSATU ETA ERANTZUN..OSTADARRA BEZAIN KOLORETSUA ETA BRASILEN BIZI DEN HEGAZTIA.

2.ZER DELA ETA ZER DELA...PARTXEA ETA EZPATA DITUEN ETA ABORDATZEN GAU ETA EGUN BIZI DEN PERTSONAIA





3.NIK ESAN ETA ZUK ENTZUN, PENTSATU ETA ERANTZUN...HANDIA DA, AZALA BERDEA DU ETA TELEBISTAKO IRAGARKI BATEAN ATERATZEN DEN PERTSONAIA.

4.ZER DELA ETA ZER DA..LEPOA OSO LUZEA, MINGAINA BELTZA ETA GORPUTZA ELEFANTEA BAINO ALTUAGOA DUEN, SAGARRAK GUSTUKO DITUEN ETA ZUHAITZETARA IRISTEN DEN ANIMALIA.

5.ZER DELA ETA ZER DA...2 BEGI, 2 BELARRI, 4 HANKA, USAIMEN ONA DUEN ETA ZAUNKA EGITEN DUEN ANIMALIA.

6.ZER DELA ETA ZER DELA..GAUZAK ONDO BILATZEN DITUEN ETA BURUZ OSO AZKARRA DEN PERTSONA.



7.NIK ESAN ETA ZUK ENTZUN, PENTSATU ETA ERANTZUN..BERTAN JENDEA BIZI DAITEKE, MAHAIAK DAUDE ETA ETXEA BEZAIN HANDIA DEN ERAIKUNTZA.

8.ZER DEN ETA NOLA DEN, PENTSA EZAZU ETA JAKINGO DUZU..BELARRA JATEN DUEN ETA GEPARDOA BEZAIN AZKARRA IZAN DAITEKEEN ANIMALIA.



9.ZER DELA ETA ZER DELA..NIRE BIHOTZA BEZAIN GARRANTZITSUA ETA JATORRA DEN PERTSONA.

10.ZER DELA ETA ZER DELA..BOROBIL-BOROBILA, UZTAIA BEZAIN BOROBILA ETA KOLORE ASKO DITUENA.



11.NIK ESAN ETA ZUK ENTZUN,PENTSATU ETA ERANTZUN..AFRIKAKO ANIMALIA BAT, LARANJA KOLOREKOA, BELARRA JATEN DUENA ETA TXIRRINDULA BAINO AZKARRAGOA DENA.

1.LOROA.2.PIRATA.3.HULK.4.LEPALUZEA.5.TXAKURRA.6.DETEKTIBEA.7.JATETXEA.8.ERBIA.9.ANAI-ARREBA.10.PILOTA.11.GAZELA



## DEFINIZIO EROAK

KAIXO LAGUNOK, 3.C GELAKOEK DEFINIZIO BEREZI SAMARRAK PRESTATU DITUGU ZUENTZAKO. EZ PENTSA HIZTEGIAN AGERTZEN DIREN MODUKOAK DIRENIK, IRAKURRI BESTELA!!!



**DANBORRA :** APIRILAREN BUKAERAN BURUKO MINA SORTZEN DUEN MUSIKA TRESNA.



**4444:** ITXARON GELA DIRUDIEN ZENBAKIA.

**MOTXILA:** SORBALDAN DARAMAGUN LIBURU IRENSGAILUA.



**ZAKILA :** ELEFANTEAREN TRONPAREN LEHENGUSU TXIKIA.

**ARMIARMA:** DANTZA EGITEAN HANKAK KORAPILATZEN ZAIZKION ANIMALIA.

**MAITASUNA :** LETRA, 5 BOKAL, 4 KONTSONANTE ETA 2 TONTOLAPIKO DITUEN HITZA.

**TXORIA :** HEGAZKIN TXIKI LUMADUN ABESLARIA.



**ESTUTXEA :** ARKATZA ETA EZABAGOMAREN KARTZELA.



**HERENSUGEA :** HIRU ZATI BERDINETAN BANATUTA DAGOEN SUGEA.

**SUPERHEROIA :** GALTZONTZILOAK PRAKEN GAINETIK DARAMAN PERTSONAIA.







**TIPULA :** PENA HANDIA EMATEN DUEN BARAZKIA.

**ARBELA DIGITALA :** BETIKO ARBELAREN LEHENGUSU MODERNOA.

**IKASTURTEAN ZEHAR 4.MAILAN HAINBAT TESTU MOTA LANDU DITUGU. JARRAIAN, DOAKIZUE HIRU GELETAN EGINDAKO AZKEN LANAK: PERTSONEN DESKRIBAPENAK.**

## Deskripzioa

Carmen, Umandi Ikastolako irakaslea da. Gasteizen bizi da, eta berrogeita hamar urtetik gorako emakumea da.

Bera normala da, ez altua, ez baxua, ez argala, eta potoloa ere ez. Ile motza eta horia du, eta batzuetan pikat nahastuta. Bere begiak, zerua bezain urdinak dira. Beti prakak eramaten ditu eta arropa erosoa. Belarrietan zintzilu txiki batzuk eramaten ditu.

Carmen alaia eta gogotsua da. Gustatzen zaio umeei erakustea eta pazientzia handia du. Bera, sentikorra da. Berari bidaiatzea asko gustatzen zaio, eta oso trebea da lan guztietan.

Iker Gonzalez

## Juan

Juan bederatzi urteko mutikoa da eta Raúl izeneko anai biki bat du. San Sebastian de los Reyes herrian (Madril) bizi da bere ama, aita eta anaia bihurriarekin.

Mutilak ile motza, lisoa, kolore argikoa eta kalpar bat aurrean, eskuineko aldean du. Larrua nahiko beltzarana dauka. Belarra bezain berdeak ditu bere begi txikiak. Bekainaren goiko aldean orban txiki bat dauka. Baxu samarra da.

Beti poz-pozik egoten da irribarre batekin ahoan. Juan lagun leiala da, goxoa, bihurria, berritsua, alaia... Baina jenio bizikoa eta bere gauza txarrak ditu. Futbola asko gustatzen zaio, bere anaiarekin jolastea ere. Hala ere, aipagarriena da bihotz onekoa dela eta beldurti samarra baita.

Uxue Porras

## NIRE AITA IMANOL

Nire aita Gasteizen jaio zen, Gasteizko bulego batean egiten du lan eta ingeniaria da. Bere bi anaietatik hirugarrena da, hau da, gazteena da. 1969. urtean jaio zen, beraz 42 urte ditu.

Nire aita altua da, ez lodia eta ez argala. Ilemotz-motza eta beltza, ikatza bezalako dauka. Begi marroiak eta ertainak ditu. Sudur luzea eta bere sudur gainean betaurreko beltz batzuk. Bere ahoa handi samarra da eta bere hortzak zuriak dira elurra bezalakoxeak. Nire aitak ia beti, alkondara urdin bat zerua bezalakoa, praka urdin batzuk eta zapatilla beltzak eramaten ditu.

Nire aita jenio bizikoa da, jatorra, langilea eta matematiketan jakintsua, baina beste gauza batzuetan ere. Nire aitaren zaletasunak: lan egitea, matematikak, guden filmak ikustea, mendira joatea, animaliak, dokumentalak eta hizkuntzak dira; Ingelesa, Errusiera...

Maialen 4.C

## URTARRILETIK HONA MAKINA EKINTZA OSAGARRI BURUTU DITUGU.





1.- ANTZERKIA. HIRUHILABETE HASIERAN, AHOZKOTASUNA LANTZEKO, "MAKILAKIXKI" ANTZEZLANA ANTZEZTU GENUEN ARRAKASTA HANDIZ.



2.- EUSKAL DANTZA. URTERO BEZALA, FOLKLORE ESKOLAKOEK BISITATU GINTUZTEN ETA BI DANTZA IRAKATSI ZIZKIGUTEN. DANTZA PLAZARA JOATEKO MODUAN GAUDE!!!!!!



3.- MENDIXUR ORNITOLOGAIA PARKEA. NOLA GOZATU GENUEN ARABARA DATOZEN HEGAZTIAK IKUSTEN ETA BERAIEN EZAUGARRIAK IKASTEN !!!!!!!!!!



4.- SUKALDARITZA TAILERRA. 4. MAILAKO IRATIREN AITAK ( BRIONESEKO "LOS CALAOS" JATETXEKO SUKALDARIA) ETA SUKALDARI LAGUNTZAILE BATEK TE PASTAK EGITEN ERAKUTSI ZIGUTEN ETA ONDOREN, AURREZ PRESTATUTAKO GALDERA SORTA BAT EGIN GENIEN.







5.- ARTE EDERRETAKO MUSEOA. GOIZ OSOA EMAN GENUEN BERTAN. BODEGOIA, ERRETRATOA ETA PAISAIAREN EZAUGARRIAK AZTERTU, BEREIZTU, ETA ...BUKATZEKO HIRUNAKA ERRETRATO XELEBRE HAUEK MARRAZTU GENITUEN.

# POEMAK

"TXORI KANTARIAK, POETA HEGALARIAK" LIBURUAN AGERTZEN DIREN POEMA MOTA EZBERDINAK IRAKURRI ETA LANDU DITUGU. GU GEU ERE, POETA IZATERA ANIMATU GARA, ETA HONA HEMEN GURE POEMA SORTA:



## LOTSA

BADA GORROTO DUDAN LAGUN BAT.
IRITZIA EMAN NAHI DUDANEAN
"EZ, EZ, EZ, HOBETO EZ" ESATEN DIT,
"JENDEARI EZ ZAIO GUSTATUKO".

BADA GORROTO DUDAN LAGUN BAT.
LAGUN BERRI BATI IZENA GALDETU NAHI DIODANEAN
"EZ, EZ, EZ, H OBETO EZ" ESATEN DIT,
"EZ DIZU KASURIK EGINGO".

BADA GORROTO DUDAN LAGUN BAT.
ABESTU NAHI DUDANEAN
"EZ, EZ, EZ, HOBETO EZ" ESATEN DIT,
"GAIZKI ABESTUKO DUZU".

## LOREAK NEGUAN

LOREAK NEGUAN
AKABO EGIN DIRA.

NIRE MAITASUNA
HIL EGIN DA

DATORREN URTEAN LOREAK
MAITASUNAREKIN BUELTATUKO DIRA

LOREAK NEGUAN
AKABO EGIN DIRA.

## AMETSA

GAUERO, ERDI LO NAGOELARIK,
HERENSUGE TXIKI BAT LEIHOTIK SARTZEN DA.
BIOK HERENSUGEAREN MUNDURA ABIATZEN GARA.

GOIZEAN, AGUR-AGUR ESATEN DUGU
ETA ERDI LO OHEAN GELDITZEN NAIZ.

BAINA BADAKIT GAUERO ETORRIKO DELA,
NIRE LAGUNA DELAKO





# ERREZETAK:

ELIKADURA DELA ETA EZ DELA, GURE GORPUTZA HOBETO ZAINTZEN IKASI DUGU; ELIKAGAI MOTA EZBERDINAK BEREIZTUZ, FUNTZIOAK EZAGUTUZ,... HONEN ONDORIOZ, JAKIAK PRESTATZEN ERE IKASI DUGU ETA HEMEN DAUKAZUE ZUEK ERE GUREKIN IKASTEKO ERREZETA BATZUK. ANIMA ZAITEZTE!!!!

## ADARBAKOITZ



**OSAGAIAK:**

-OGI-XERRA BAT

-YORKEKO URDAIAZPIKOA

-HIRUGIHARRA FRIJITUA

-GAZTA

**PRESTAKETA:**

LEHENENGO OGITARTEAHARTZEN DUGU ETA OGI-XERRA LABANAREKIN ZATITZEN DUGU.GERO HIRUGIHARRA ZARTAGINEAN JARTZEN DUGU FRIGITU ARTE ETA FRIGITU ONDOREN OGI-XERRAREN GAINEAN JARRIKO DUGU.ONDOREN YORKEKO URDAIAZPIKOA ETA GAZTA OGI-XERRAREN GAINEAN JARTZEN DITUGU.AZKENIK ZOTZAREKIN ZEHARKATUKO DUGU.ON EGIN!!!

## FRIJITUTAKO PINTXOA



**OSAGAIAK:**

-OGI BAT.

-KROKETA BAT.

-MAZIA BAT.

-ARRAUTZA.

-SALTXITXA BAT.

**PRESTAKETA:**

HASTEKO,OGIA XIGORGAILUAN SARTU BEHAR DA.GERO ARRAUTZ TXIKI BAT,KROKETA BAT ETA SALTXITXA ZARTAGINAN JARTZEN DIRA FRIJITZEKO, KONTUTAN IZAN INDIBIDUALKI FRIJITU BEHAR DIRELA. AMAITZEKO MAZIA EREFRIJITUKO DA. FRIJITZEN BUKATZEN DENEAN, OGI XIGORTUA PLATER BATEAN JARRI ETA ORDEN HONETAN OSAGAIAK BEREN GAINEAN IPINIKO DIRA: ARRAUTZA,KROKETA ETA MAZIA.AZKENIK ZOTZ BATEZ ZEHARKATU PINTXO OSOA. ZE GOXOA!

## MAKARROIAK TOMATEAREKIN



**OSAGAIAK:**

- MAKARROIAK: KILO1
- AZUKREA: 2 GOILARAKADA
- URA: 5 EDALONTZI
- GATZA
- TOMATEA: BOTE 1
- OLIOA

**TRESNAK:**

- 2 LAPIKO
- KOILARA 1

**NOLA EGIN/PRESTAKETA**

LEHENENGOZ LAPIKO BATEAN URA JARRI, IRAKIN ARTE. MAKARROIAK URA DAGOEN

LAPIKOAN 10 MINUTUZ EDO EGOSI ARTE EDUKI.ONDOREN, BESTE LAPIKO BATEAN OLIO KOILARAKADA BI JARRI. GERO OLIOAREN GAINEAN TOMATEA BOTA ETA TOMATEARI AZUKRE KOILARAKADA BI ETA GATZ PIZKA BAT.GEROXEAGO, MAKARROIAK BIGUNAK DAUDENEAN, URA KENDU ETA AZKENEAN MAKARROIAK TOMATEAREKIN NAHASTU BEHAR DIRA.

## PINTXO BEGETALA



**OSAGAIAK:**

-8 OGI ZATI INTEGRAL.
-2 TOMATE.
-4 ZATI LETXUGA.
-50 GR. PHILADELPHIA.
-GATZA.
-OLIOA.

**PRESTAKETAK:**

LEHENENGO , OGI ZATI INTEGRAL BAT HARTU. GERO, OGI ZATIA PHILADELPHIAZ IGURTZI. ONDOREN LETXUGA ZATI BAT GAINEAN JARRI ETA BAITA TOMATE ZATI BATZUK ERE. AZKENIK, GATZ ETA OLIO PIXKA BAT BOTA.(EGIN BERDINA BESTE HIRU ALDITAN).

INFORMAZIOA:

PINTXO HAU ENTSALADA JATEKO MODU DIBERTIGARRI BAT DA , ETA OGI INTEGRALAK ZEREAL ASKO DITU.

## SALTXITXA HIRUGIHARRAREKIN



**OSAGAIAK:**

- 8 SALTXITXA
- 200 G HIRUGIHAR
- 8 ZOTZ
- 15 CL OLIO

**PRESTAKETA:**

LEHENENGO, ZATITU ITZAZU ERDITIK SALTXITXAK ETA HIRUGIHARRA . GERO, BIRIBIL ITZAZU HIRUGIHARRAK SALTXITXEN INGURUAN ETA IPIN ITZAZU ZOTZAK ONDO LOTZEKO.

BITARTEAN, ATERA EZAZU ZARTAGIN BAT ETA BOTA EZAZU OLIOA.

AMAITZEKO, BOTA ITZAZU PINTXOAK ZARTAGINERA ETA ONDO FRIJITU.

**OSO GOXOA EGONGO DA... ON EGIN!!!**

NUTRIZIO EZAUGARRIAK:

SALTXITXAK ETA HIRUGIHARRA ELIKAGAI ERAIKITZAILEAK DIRA ETA, HORIEN BITARTEZ, PROTEINAK BERREZKURATUKO DITUZU.

## BROWNIE



**OSAGAIAK:**

-120G TXOKOLATE
- 220G GURIN
- 4 ARRAUTZ
- 220G AZUKRE
- 70G IRIN
-INTXAURRAK

**PRESTAKETAK:**

LEHENENGO, TXOKOLATEA ETA GURINA, ALDI BEREAN, LABEAN DESEGITEN DITUGU. ONDOREN, ARRAUTZAK, AZUKREA ETA IRINA GOILARA BATEKIN NAHASTEN DITUGU. GERO, INTXAURRAK TXIKITZEN DITUGU ETA PLATER BATEAN UZTEN DITUGU.

OSTEAN TXOKOLATEA BOL BATEAN SARTZEN DUGU. HORI EGIN ONDOREN, EGINDAKO MASA JARTZEN DUGU ETA PIXKANAKA-PIXKANAKA GURINA BOTATZEN DUGU. AZKENIK, LABEAN SARTZEN DUGU 180ºC-ETAN ETA 30 MINUTU PASA ETA GERO ATERAKO DUGU.

ON EGIN!

# ZABORRAREN IBILBIDEA

6. MAILAKO IKASLEAK GASTEIZKO ZABORTEGIA BISITATU GENUEN ETA GAUZA ASKO IKASI GENUEN,BEGIRA ... 1975. URTEAN HASI ZEN ERABILTZEN ETA 2020.URTE ARTE EGONGO DA ERABILGARRI GARDELEGI, GASTEIZKO ZABORTEGIA.
ALDE EZBERDINEK OSATZEN DUTE:

## GARBIGUNEA:

ZABOR MOTA ASKO DAUDE, ETA BAKOITZAK TRATAMENDU EZBERDIN BAT: ALDE BATETIK TELEBISTAK,FRIGORIFIKOAK ETA ORDENAGAILUAK, TRATAMENDU ESPEZIALA IZATEN ZUTEN EZ KONTAMINATZEKO.
BESTE ALDE BATETIK ADIBIDEZ: NEUMATIKOAK,UMEEN PARKEKO ALFOMBRILLAK EGITEKO BALIO DUTE.
GERO ESPRAIAK, FLUORESZENTEAK, BONBONAK, PINTURAK... APARTE JARTZEN ZUTEN.
ERAIKUNTZAKO HONDARRAK MENDIETAN PILATZEN DITUZTE ETA GERO TXIKITU ERREPIDEETAN ERABILTZEKO.





## ZABORTEGIA.

ZABORRA PILATZEN DA PRESTATUTAKO TOKIETAN.BILTEGIKO HONDOAN KONTU HANDIZ IRAGAZTEN DA, HORRELA LIXIBIATUAK LURREAN SARTU ETA INGURUKO LUR AZPIKO URAK KUTSA EZ DITZATEN.

–ZABOR ORGANIKOA USTELTZEAN, METANO GASA SORTZEN DU, ETA TUTU BATZUEN BIDEZ GAS HORI JASOTZEN DA ETA MOTOR BATERA ERAMATEN DUTE. GERO, MOTORRAK ELIKTRIZITATEA BIHURTZEN DU; KALKULATZEN DUTE URTEAN 1500 FAMILIENTZAKO ELEKTRIZITATEA SORTU AHAL DELA GASTEIZKO ZABORTEGIAN SORTZEN DEN GASAREKIN.

TXIMINIA BAT ERE BADAGO, 3 METRO NEURTZEN DUENA, GUTXI GORA BEHERA, BELTZA DA, ETA METANOREN ZATI TXARRAK ERRETZEKO ERABILTZEN DA, ETA SUA DAUKA.
ZABORTEGIKO ALDE BAT BETERIK DAGOENEAN, HAINBAT KAPAZ EZTALTZEN DUTE: TELA ASFALTIKOA, SARE BAT, LURRA...

# LABORATEGIA

ZABORTEGIA BI ERREKEK ZEHARKATZEN DUTE, ETA LABORATEGIKO ARDURADUNAK ANALIZATZEN DU,ERREKAKO URA ZABORTEGIAK EZ DUELA KUTSATZEN ZIURTATZEKO.



GERO LISIBIATUAK AZTERTZEN DITU, LISIBIATUAK ZABORRA USTELTZEAN SORTZEN DEN LIKIDOA DA.

HAUEK ANALIZATZEKO KOLORANTEAK ETA ERREAKTIBO EZBERDINAK ERABILTZEN DITU, ETA KOLOREAREN ARABERA JAKIN DEZAKE KONTAMINANTEA DEN ALA EZ.

HORREZ GAIN TERMOMETRO BAT DU KAMIOIEN KARGAREN TENPERATURA NEURTZEKO. ETA TENPERATURA 45º GRADU BAINO ALTUAGO BADA ITXOITEKO ESATEN DU,TENPERATURA JAITSI ARTE.



## BA AL ZENEKIEN



GUTAKO BAKOITZAK URTEAN 450 KILOGRAMOKO ZABOR PILOA SORTZEN DU, ETA ZABOR HORIETATIK %45 HONDAKIN ORGANIKOAK DIRA.

HONDARRAK DESKONPOSATZETIK ZABORTEGIETAN SORTZEN DIREN GASEK EZTANDAK SORRARAZ DITZAKETE

MATERIA ORGANIKOA DEGRADATZEKO PROZESUAK 20 URTETIK GORA IRAUN DEZAKE. ELIKAGAIEN HONDARRAK (HONDARREN %50 INGURU) URTE BATEAN EDO BITAN DEGRADATZEN DIRA; LOREZAINTZAKO HONDARRAK BOST URTE INGURUAN; PAPERA, ZURA ETA ZUNTZAK HAMABOST URTE INGURUAN. PLASTIKOAK ETA GOMAK EZ DIRA DESKONPOSATZEN.

CENTENARES DE BUITRES, CIGUEÑAS, GAVIOTAS Y OTRAS AVES Y MAMÍFEROS BUSCAN SU SUSTENTO EN GARDÉLEGUI.

EL ÚNICO DORMIDERO DE ALIMOCHES DEL PAÍS VASCO ESTÁ SITUADO EN UNOS PINOS, EN LA LADERA OESTE DEL VERTEDERO DE GARDÉLEGUI, A TRES KILÓMETROS DEL CENTRO DE VITORIA. ES EL PRIVILEGIADO OTERO SOBRE LOS CAMIONES QUE TRAEN LA BASURA DE CADA DÍA, SU SUSTENTO.

## MIRAMON









# kanpoko ekintzak

**DEPORTE ESCOLAR Y ACTIVIDADES CULTURALESDE UMANDI IKASTOLA**

















# kanpoko ekintzak















## MONDAY 13th February

We met at school at half past ten. We arrived at the English Camp by bus. After we went to the dining room to make the groups to sleep and we left our suitcases in our bedrooms. Later we went back to the dining room. The teachers made their presentations, and they made the groups to work. When we finished we had lunch. In the afternoon we had a class about the water cycle. At 16:00 we started the presentations of our projects. We had a snack. One group went to the gym, and the other group wrote a text on the blog.

When we arrived at the camp we had a shower and we had dinner. After dinner we played "cluedo" . "Euskadi Best" group was the winner. At ten o´clock we went to the bed. It was a great day !

## TUESDAY 14th February

We got up at eight oíclock. It was St. Valentineís Day. We had breakfast at half past eight. The topic of the day was "The Human Body" We had a snack (an orange). We had lentils, a steak and a yoghourt for lunch. Later, we wrote some love messages for other people.

At 4 o´clock we made the presentations of our works. Then we had an afternoon snack. We watched the blog and we went to the gym. After that we had a shower and we had dinner.

At night we played The Music Box and we read San Valentineís messages.

Josu wrote six messages to Ainhoa Goñi but she broke them. Also Jaime (one teacher) wrote some messages to Ane (another teacher).

It was a really good day!







## Wednesday 15th February

We got up at eigth o´clock. At half past eight we had breakfast. We ate "sobados" and we drank cola-cao. At nine o´clock we had English classes. The teacher said to us that the topic of the day, was the "Healthy food". We prepared different recipes like pizza, biscuits, muffins, cheese cake and pasties. At half past one we had lunch. We ate cannellonis and meat with chips. After lunch we had to brush our teeth and we had free time.

At half past four we made the presentations of the projects. The other groups evaluated our works. At half past five some people went to a gym and the others wrote in the blog. We had broccoli and fish with tomato sauce for dinner. At nine o´clock we watched "La novia cadaver". At ten o´clock we went to bed but some people didn´t sleep. But and the end everybody slept.

## Thursday 16th February

On Thursday we got up at 8:00 . At 8:30 we had breakfast. Later we brushed our teeth . We went to the classrooms and we learned some vocabulary about the "Universe".

At 11:00 we had a snack and we played.

We prepared different projects about the "Universe" . Later, we had lunch and when we finished we had free time. At 17:00 we had a snack and we went to the centre to find some clues. We enjoyed a lot and we took a photograph with Celedon .

When we returned to the English camp we had a shower and we made our suitcases. We were very sad because on Friday we had to go back home.

At 20:30 we had dinner and when we finished...we went to the DISCOOOOO! It was very funny!

## Friday 17th February

### The last day!

We got up very tired and sad because it was the last day. We made our suitcases before breakfast. Then we had breakfast and we went to the playground. Our free time finished and we went to the biggest classroom to play Trivial. It was fantastic! After that we collected our works. At one oíclock we had lunch.



We were very sad because the bus came and we had to go back to school, but we didn´t want to go. We made a lot of friends from Segura. We arrived at Umandi at 15:00 o, clock. We were very happy because we saw our families.

**WE ENJOYED A LOT !!!!!!!!!!! We recommend you this experience!**

# English Camp



# LIBURU BERRIAK




## TXIMELETA-BELARRIAK (6 URTETIK AURRERA)

MADDIK SARRITAN IKASKIDEEN BURLAK JASAN BEHAR IZATEN DITU. HORREN AURREAN INDARTSU SENTIARAZTEN DUEN GAUZA GARRANTZITSU BAT IKASI DU: GURE BEREZITASUNAK EZ DIRA AKATS, PARERIK EZ DUTEN PERTSONA BEREZI EGITEN GAITUZTEN EZAUGARRI BAIZIK.




## ORDEZKO LORE BAT AMARENTZAT (8 URTETIK AURRERA)

UDAZKENEKO GOIZ BATEAN, ZUHAITZETAKO HOSTOAK ERORTZEN HASI ZIRENEAN, AMAK SORPRESA HANDIA HARTU ZUEN...

FLO DOKTOREAK TELEFONOZ DEITU ETA BULARRETAKO BATEAN MANTXATXO BAT ANTZEMAN ZIOTELA ESAN ZION...




## GILTZA (8 URTETIK AURRERA)

NIKOK LEHENENGO ETXEKO GILTZA ESKURATZEAN POZ HANDIA HARTU DU, HORREK ASKATASUNA ETA HELTZEKO AURRERAPAUSO BAT EKARRIKO DIOLAKOAN. BAINA GAUZAK EZ DIRA GUK ESPERO DITUGUN BEZALAKOAK IZATEN, ETA ETXEKO ATEA GILTZA BERRIAZ IREKITZEAN EZUSTEKO HARRIGARRIAK TOPATUKO DITUGU. BESTALDE, GERTATZEN ZAIZKION KONTU BITXIETAN MURGILTZEKO GILTZARIK GABE TOPATZEN DU BERE BURUA...




## BUELTA BAT AITONTXUAREKIN (10 URTETIK AURRERA)

AITONA PAXKUALEK IA EHUN URTE BETE DITU ETA ZAHARREN EGOITZAN BIZI DA. MALEN BISITA EGITERA JOAN ZAIO AMAREKIN BATERA ETA TELEBISTAREN AURREAN AURKITU DUTE, ASPERTUTA. GUSTATZEN ZAIZKION GAUZA GUZTIAK DEBEKATUTA DITUENEZ MUSUZAPI BATZUK OPARITU DIZKIOTE. AITONTXUAK, HALERE BADU URTEBETETZE EGUNEAN GUSTORA JASOKO LUKEEN KUTIXIA BAT: BUELTA BAT AUTOAN.




## LA PUERTA DE LOS TRES CERROJOS (12URTETIK AURRERA)

NIKO MIR, UN CHICO SOLITARIO DE CATORCE AÑOS, NO SE IMAGINA LAS CONSECUENCIAS QUE LE ACARREARÁ NO SEGUIR EL CAMINO QUE CADA DÍA RECORRE PARA LLEGAR AL INSTITUO. AL VARIAR SU RUTA, DESCUBRE UNA CASA QUE NUNCA ANTES HABÍA VISTO. ATRAÍDO POR EL MISTERIO, SE ADENTRARÁ EN ELLA Y SE VERÁ INMERSO EN UN EXTRAÑO UNIVERSO.

## MANIFIESTO PARA UN AMBIENTE DE LECTURA EN LA ESCUELA

***1.-EDUCAR UNA ACTITUD FAVORABLE***
UNIR LA LECTURA CON EXPERIENCIAS SIGNIFICATIVAS Y NUTRIDAS DE EMOCIÓN.

***2.- DISFRUTAR LA COMUNICACIÓN***
COMPARTIR TEXTOS DESDE UNA EDAD TEMPRANA Y DISFRUTAR JUNTO A OTRAS PERSONAS EN SITUACIONES AGRADABLES QUE CREAN CLIMAS PROPICIOS PARA EL JUEGO, LA EXPRESIÓN Y EL DIÁLOGO.

***3.-GENERAR UNA MOTIVACIÓN PERSONAL***
SENTIR LA LECTURA COMO UNA FUENTE DE PLACER ESTÉTICO E INTELECTIVO, UN CAMINO PARA EL DESCUBRIMIENTO, UNA VÍA DE CONEXIÓN CON EL MUNDO Y DE PROYECCIÓN IMAGINARIA EN ÉL.

***4.- RECONOCER LA DIVERSIDAD***
LOS LECTORES DEBEN PODER ELEGIR SUS LECTURAS ENTRE UNA AMPLIA VARIEDAD DE REGISTROS CULTURALES Y DE TIPOLOGÍAS TEXTUALES.

***5.-FAVORECER LA LIBERTAD DE LECTURA***
LA EDUCACIÓN DE LA LECTURA EN LIBERTAD HA DE SER CAPAZ DE ACEPTAR LOS VALORES QUE CADA LECTOR DESEE APORTAR A SU MUNDO IMAGINARIO DESDE LO QUE LEE.

***6.-APRECIAR LA CALIDAD LITERARIA***
SABER IDENTIFICAR TEXTOS CUYA LECTURA FOMENTA EL APRECIO DE LA BELLEZA, EL DISCERNIMIENTO ENTRE LO PROFUNDO Y LO BANAL, EL DIÁLOGO CON UNO MISMO.

***7.-EJERCER LA MEDIACIÓN ENTRE LOS LECTORES Y LOS TEXTOS***
EL ADULTO QUE EJERCE DE MEDIADOR ENTRE LOS TEXTOS Y LOS LECTORES, DEBE ESTIMULAR A ÉSTOS COMPARTIENDO EXPERIENCIAS DE LECTURA, RECIBIENDO Y TRANSMITIENDO RECOMENDACIONES, NARRANDO Y LEYENDO EN VOZ ALTA.

***8.-DESARROLLAR LA COMPETENCIA COMUNICATIVA***
FAVORECER EL DESARROLLO DE LA COMUNICACIÓN LINGÜÍSTICA Y EL CRECIMIENTO PERSONAL ANIMANDO A LOS LECTORES A INTERACTUAR ENTRE ELLOS DIALOGANDO SOBRE LOS TEXTOS.

***9.-VINCULAR PLACER LECTOR Y COMPRENSIÓN***
EL RENDIMIENTO EN COMPRENSIÓN LECTORA VA UNIDO CON LA MOTIVACIÓN PERSONAL HACIA LA LECTURA Y EL PLACER DE LEER.

***10.- DISTINGUIR ENTRE REPRODUCCIÓN Y PRODUCCIÓN***
IR MÁS ALLÁ DE LA MERA CAPACIDAD DE REPRODUCIR LO QUE SE HA LEÍDO PARA LLEGAR A SER CAPAZ DE PRODUCIR NUEVOS SIGNIFICADOS.

***11.-ALENTAR LA AFICIÓN Y LA DEDICACIÓN***
LA MOTIVACIÓN Y LA DEDICACIÓN A LA LECTURA ALIENTAN LA BÚSQUEDA DE NUEVOS RETOS TEXTUALES, CADA VEZ MÁS COMPLEJOS QUE SE VEN RECOMPENSADOS CON NUEVOS HALLAZGOS DE PLACER LECTOR.

***12.-CARACTERIZAR LA BIBLIOTECA COMO LUGAR PARA EL PLACER LECTOR***
LA BIBLIOTECA ESCOLAR ES UN LUGAR PRIVILEGIADO PARA LA INTERACCIÓN ENTRE LECTORES, PARA COMPARTIR EL PLACER DE LEER Y DESARROLLAR EL GUSTO POR LA LECTURA.

(RESUMEN DEL MANIFIESTO HECHO PÚBLICO CON MOTIVO DEL DÍA INTERNACIONAL DEL LIBRO DE 2012 Y FIRMADO POR 205 TRABAJADORES DE EDUCACIÓN INFANTIL, PRIMARIA, SECUNDARIA Y UNIVERSITARIA; SERVICIOS TÉCNICOS DE EDUCACIÓN; BIBLIOTECAS PÚBLICAS; ESCRITURA Y NARRACIÓN ORAL; EDICIÓN Y LIBRERÍA; CRÍTICA LITERARIA Y ANIMACIÓN A LA LECTURA; PERIODISMO Y GESTIÓN CULTURAL.)

## ESKOLAKO IRAKURKETA GIROAREN ALDEKO ADIERAZPENA

***1.-IRAKURKETAREN ALDEKO JARRERA LANTZEA***
IRAKURKETA EMOZIOZ ETA ABERATSAK DIREN BIZIPEN ESANGURATSUEKIN LOTU.

***2.-BESTE IRAKURLE BATZUEKIN SORTUTAKO HARREMANETAN GOZATZEA***
TXIKITATIK TESTUAK PARTEKATZEKO ZALETASUNA SUSTATU ETA BESTE IRAKURLE BATZUEKIN BATERA JOLASERAKO, ADIERAZPENERAKO ETA ELKARRIZKETARAKO GIRO EGOKIA ERRAZTEN DUTEN EGOERAK SUSTATU.

***3.-MOTIBAZIO PERTSONALA SORTZEA***
IRAKURKETA MUNDUAREKIN LOTUKO GAITUEN GOZAMEN ITURRI ETA IRUDIMENERAKO BIDE BEZALA SENTITU.

***4.-ANIZTASUNA ONARTZEA***
ZER IRAKURRI ERABAKITZEKO ORDUAN, IRAKURLEAK MOTA ETA KULTUR ERREGISTRO EZBERDINETAKO TESTU UGARI IZAN BEHAR DITU AUKERAN.

***5.-IRAKURKETARAKO ASKATASUNA BERMATZEA***
IRAKURKETAN ASKATASUNEZ HEZTEKO, IRAKURLEEK IRAKURTZEN DUTEN TESTUTIK BERAIEN IRUDIMENEZKO MUNDURA GEHITZEA ERABAKITZEN DUTEN BALORE MULTZOA ONARTU BEHAR DA.

***6.-LITERATURA-KALITATEA BALORATZEA***
EDERTASUNAREN BALOREA, GAUZA SAKON ETA AZALEKOEN ARTEKO BANAKETA ETA NORBERAREKIKO ELKARRIZKETA SUSTATZEN DUTEN TESTUAK BEREIZTEN JAKITEA.

***7.- IRAKURLEEN ETA TESTUEN ARTEKO BITARTEKARI IZATEA***
IRAKURLEEN ETA TESTUEN ARTEKO BITARTEKARI LANA EGITEN DUEN PERTSONA, IRAKURLEEI BERE IRAKURKETAREN INGURUKO BIZIPENAK ADIERAZIZ, GOMENDIOAK JASOZ ETA EMANEZ ETA TESTUAK OZENKI LANDUZ HAUEN IRAKURZALETASUNA PIZTEN SAIATU BEHAR DA.

***8.-KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA GARATZEA***
TESTUEN INGURUKO ELKARRIZKETAK SORTU IRAKURLEEK ELKARRI ERAGITEKO ETA HORREN BIDEZ HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOA ETA GARAPEN PERTSONALA SUSTATZEKO.

***9.-IRAKURKETAREKIKO GOZAMENA ETA IRAKURKETA-ULERMENAREN LOTURA***
IRAKURZALETASUNA ETA IRAKURKETAREKIKO JARRERA POSITIBOAK IRAKURKETAREN ULERMENAREKIN MODU ZUZENEAN LOTURIK DAUDE.

***10.-ERREPRODUKZIOAREN ETA EKOIZPENAREN ARTEKO DESBERDINTASUNA EGITEA***
IRAKURRITAKOA ERREPIKATZEAZ GAIN, IRAKURLEA TESTUTIK ATERATZEN DUEN INFORMAZIOAREN LAGUNTZAZ EKOIZPEN PROPIOAK SORTZEKO GAITASUNA GARATZEA.

***11.-IRAKURKETAREKIKO ZALETASUNA ETA ARDURA BULTZATZEA***
IRAKURKETAREKIKO MOTIBAZIOAK IRAKURKETA-ERRONKA BERRIEN BILAKETA DAKAR, HORIEN LORPENERAKO ESFORTZUA GOZAMENERAKO AUKERA BERRIEKIN SARITUA DELARIK.

***12.-LIBURUTEGIA IRAKURLEAREN GOZAMENERAKO TOKI BIHURTZEA***
ESKOLAKO LIBURUTEGIA IRAKURTZEKO GOGOA PIZTEKO ETA IRAKURLEEN ARTEKO HARREMANAK SENDOTZEKO TOKI EZIN HOBEA DA.

(2012KO LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNEAN AURKEZTUTAKO ADIERAZPENA HAUR, LEHEN, BIGARREN ETA LEHEN HEZKUNTZAKO; HEZKUNTZAKO ZERBITZU TEKNIKOETAKO; UDAL LIBURUTEGIETAKO; IDAZKETA ETA NARRAZIO ALORRETAKO; ARGITALPEN ETA LIBURUDENDETAKO; LITERATURA-KRITIKAKO; KAZETARITZAKO ETA KULTURA-KUDEAKETAKO 205 LANGILEK SINATUA.)

www.piratazaharra.blogspot.com

SALAM ALECUM LAGUNOK! APIRILAREN HASIERAN 1.GO ETA 2. MAILAKO IKASLEOK SAHARAKO BIZIMODUA ETA OHITURAK EZAGUTZEKO AUKERA IZAN GENUEN.

YARAN· APOA ETA ERLEAIPUINAREN BIDEOA IKUSI GENUEN ETA BERTAN BASAMORTUKO JANARI EZBERDINAK AIPATZEN ZIREN. HORIETAKO BATZUK UKITU, USAINDU EDOTA DASTATZEKO AUKERA IZAN GENUEN: TE BELARRA, DATILAK, CUS-CUSA...







GAUZA BITXI BAT ERE IKASI GENUEN: BA AL DAKIZUE ZER EGITEN DUTEN BASMORTUKO BIZTANLEEK BERTAKO TENPERATURA ALTUEI AURRE EGITEKO? TE INFUSIO BERO-BEROA EDATEN DUTE! JAKIN NAHI AL DUZUE ZERGATIK? HORRELA GORPUTZA BEROTU EGITEN ZAIELAKO ETA KANPOKO BEROA EZ DUTELAKO HAINBESTE NABARITZEN.













Apirilak 27an, San Prudentzio bezperan, aspaldiko ohitura denez, arratsaldean danborrada ospatu genuen. Ikastolako ikasle guztiek parte hartu zuten eta danborrajoleek erritmo desbernidak eskaini zizkiguten.
3. 4. 5. eta 6. mailako ikasleek xirulaz jo zuten "Erretretaren" melodia eta bukatzeko denok batera "erretreta" abestu genuen.
Primeran atera zen eta ospatzeko gurasoek gela guztietan erroskila goxo-goxoak utzi zizkiguten.







El día 27 de abril, vispera de San Prudencio, como es constumbre celebramos la tamborrada. Todos los alumnos-alumnas de la ikastola salieron al patio con sus tambores y nos ofrecieron diferentes ritmos.
Los alumnos/as de 3º, 4º, 5º y 6º de primaria tocarón la melodia de la "retreta" con la flauta y para finalizar todos cantamos la retreta.
Para celebrar lo bien que tocaron nuestros "cocineros-as" los padres y madres de la ikastola les obsequiaron con rosquillas.

## ESCUELA DE PADRES-MADRES

Para todos los que tengáis interés en leer artículos interesantes en relación a la educación de vuestros hijos-as aquí tenéis la dirección de una revista Online y de su fundador :***Jose Antonio Marina.***

JOSE ANTONIO MARINA es un filósofo impulsor una Universidad de Padres on-line.

Es un proyecto pedagógico dirigido por José Antonio Marina para colaborar con los padres durante todo el proceso educativo de sus hijos. La idea fundamental de este proyecto es que toda la sociedad debe ayudar en esta tarea. Como dice el lema de Movilización Educativa: "Para educar a un niño, hace falta la tribu entera"

La dirección en la que podéis encontrar dicha revista es:

Universidaddepadres.es Universo UP (revista Online sobre aspectos de la educación de nuestros hijos-hijas)

Artículos que podemos encontrar en dicha revista:

- La educación sexual de nuestros hijos
- Como trabajar la afectividad
- Niños/as llave

www.universidaddepadres.es



# umandi iKastola



ORDENADOS DE ARRIBA ABAJO Y DE IZQUIERDA A DERECHA.

FILA DE ARRIBA EMPEZANDO POR LA IZQUIERDA.

1.-MERTXE ELIZALDE, ARANTZA AZPIAZU, KEPA SAGAZTA, ENDIKA BALZA DE VALLEJO, MIKEL OLASO, JON PEREZ DE NOTARIO, JOSEBA GARCÍA, ANDER PECIÑA, MIKEL RAMOS, JOSU FERNÁNDEZ.

2.-SUGOI SOTO, OIER PEREDA, JOSE ANTONIO MÉNDEZ, JULEN TRUJILLO, JAVIER SOTO, ANDONI GALLEGO, JULEN LÓPEZ, ESTHER ECHAGUIBEL, ANE MARTINEZ, ALBA SANTACRUZ. EKIÑE CASTRO, YASSIRE CUESTA, IDOIA GARCÍA.

4.-JOEL LARRUBIA, YERAY SÁENZ, GUILLERMO SÁNCHEZ, IMANOL DE LA PUERTA, XABIER GASCO, YERAY RUIZ DE AZÚA, IKER RUIZ DE AZÚA, JULEN SÁNCHEZ, ANDONI DE SOSA, IÑIGO YUDEGO, IBAI RUIZ, JON SÁENZ. ANDER GALLO.

5.-IKER DUQUE, UNAI MENDIETA, UNAI RAMÍREZ DE LA PISCINA, UNAI LORENZO, ERIK MATUTE, LIUDMIL DÍAZ, LIHER ALDAMA, AINHOA GONZÁLEZ, IRATI CERNADAS, PATRICIA CARLOS DE VERGARA, NEREA ALVAREZ.

6.-UXUE LARRIETA, NAIARA RIOS, SAIOA ORTEGA, AIDA VALLE, AITANA PASALODOS, ANNE MC QUAID, JUDITH CORRAL, LEYRE ROJO, AINHOA OLALDE.

7.-JAHILENNE RAMIREZ, JANIRE DÍAZ, MAITANE SERRANO, NEREA LARRAÑAGA, ANDREA TEJEDA, AINARA LÓPEZ, NEHIKARI GUERETA, NEREA SAIZ, CYNTHIA COLMENERO, GARAZI GARCÍA.